



EDATEKO URA BANATZEKO TOKIKO BIGARREN MAILAKO SAREA KUDEATU, MANTENDU, USTIATU ETA KONPONTZEKO BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN JARDUKETA PLANARI TXERTATZEKO BALDINTZEN AKORDIOA

ACUERDO DE CONDICIONES DE INCORPORACIÓN AL PLAN DE ACTUACIONES DEL CONSORCIO DE AGUAS BILBAO-BIZKAIA PARA LA GESTIÓN, MANTENIMIENTO, EXPLOTACIÓN Y REPOSICIÓN DE LA RED SECUNDARIA LOCAL DE DISTRIBUCIÓN DE AGUA POTABLE

Galdakao, 2017ko azaroaren 29a.

En Galdakao, a 29 de noviembre de 2017.

BILDU DIRENAK

Alde batetik, Ibon Uribe Elorrieta, Galdakaoko udalaren Alkate Presidentea, eta, bestetik, Ricardo Barkala Zumelzu, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Presidentea.

REUNIDOS

De una parte, D. Ibon Uribe Elorrieta, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Galdakao, y de otra, D. Ricardo Barkala Zumelzu, Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia.

JARDUTEN DUTE

Euretako lehenengoak, Galdakaoko udalaren Alkate presidente gisa, bere izenean eta ordezkartizan, egintza honetarako ahalmena duena, Udalbatzak 2017ko urriaren 26an egindako osoko bilkuran hartutako erabakiz.

INTERVIENEN

El primero de ellos, en su calidad de Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Galdakao, en su nombre y representación, facultado para este acto por acuerdo del Excmo. Ayuntamiento Pleno adoptado en sesión celebrada el 26 de octubre de 2017.

Bigarrenak, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Presidente gisa, bere izenean eta ordezkartizan, egintza horretarako ahalmena duena, Entitate horretako Zuzendaritza-batzordeak, urte bereko azaroko 28an egindako bilkuran, hartutako erabakiz.

El segundo, en su calidad de Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia, y en su nombre y representación, facultado para este acto por acuerdo del Comité Directivo de dicha Entidad adoptado en sesión celebrada el 28 de noviembre del mismo año.

Biek dihardute duten ordezkartizan, dokumentu hau sinatzeko legezko gaitasuna dutela aitortzen diote elkarri eta horretarako,

Ambos intervienen en la representación que ostentan, se reconocen mutuamente capacidad legal para suscribir el presente documento y a tal efecto,

ADIERAZTEN DUTE

LEHENENGOA.- 1967ko martxoaren 17an, entitate publiko batzuen artean Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa eratu zela, horien artean Galdakaoko udala, lehen mailako sarean Eskualdeko urak eta saneamendua ezartzeari eta ustiatzeari buruzko zerbitzuak instalatzeko eta kudeatzeko, zerbitzu horien tokiko sareak ezartzeko eta ustiatzeko laguntza ekonomikoa emateko eta helburu horietarako aholkularitza teknikoa eskaintzeko.

EXPONEN

PRIMERO.- Que el 17 de marzo de 1967 se constituyó el Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia entre una serie de entidades públicas, entre las que se encontraba el Ayuntamiento de Galdakao, para la instalación y gestión de los servicios relativos al establecimiento y explotación de aguas y saneamiento de la Comarca en red primaria, la ayuda económica para el establecimiento y explotación de las redes locales de los mismos servicios y el asesoramiento técnico para tales finalidades.

1972. urtean, helburuak zabaldu ziren, bai udaletako

En el año 1972, los fines fueron ampliados tanto a la



tokiko bigarren mailako sareen abonatuak kudeaketa, bai horien mantentze eta ustiapena egiteko, kontsurtzioa edozein udalerriri kideak hala eskatuta.

BIGARRENA.- Kontsurtzioaren eginkizuna da, estatutuen arabera, Kontsurtzioa udalerriri kideei ur horniketa eta saneamenduko lehen mailako sarea ezarri eta ustiatzea.

HIRUGARRENA.- Estatutuen 7. artikulua, 2. eta 4. atalari, ezartzen du Kontsurtzioa osatzen duten udalerrien bigarren mailako sareak ustiatu, mantendu eta konpontzeko ardura hartzen duela.

LAUGARRENA.- Kontsurtzioa Batzar Nagusiak, 2000ko azaroaren 23an, Jarduketa-plana onetsi zuen, Estatutuen 7. artikuluan adierazitakoaren arabera, tokiko bigarren mailako sarea kudeatzea, mantentzea, ustiatzea eta konpontzea jaso eta agintzen duen ur-banaketa zerbitzua hobetzeko eta erregularitasun, kalitate, segurtasun eta eraginkortasun baldintza hobetan emate aldera.

BOSGARRENA.- Galdakao udalak eskatu du Jarduketa-plan horretan sartzea, Udalbatzak 2017ko urriaren 22an egindako osoko bilkuran hartutako erabakiaren arabera.

SEIGARRENA.- Erabakiak jarduketa, eskubide eta betebeharrak batzuk dakartza berarekin, guztiak ere erregularizazioa behar duten aspektuak direlarik, ondoko baldintzen arabera,

BALDINTZAK

LEHENENGOA.- HELBURUA

Dokumentu honek edateko ura banatzeko tokiko bigarren mailako sarea, hala nola, udalak berak dituen baliabideak ustiatzeko udalerriri lehen mailako sareak, kudeatu, mantendu, ustiatu eta konpontzeko Jarduketa-plana, Kontsurtzioaren aldetik, egiteko baldintzak ezartzen ditu, beti ere Udalak eta Kontsurtzioak hitzartu ondoren.

BIGARRENA.- JARDUKETA-PLANEAN SARTZEKO HELBURUAK, IRIZPIDEAK ETA BALDINTZAK ONARTZEA

Udalak eta Kontsurtzioak hartutako konpromisoak berariaz onartzen dituzte, eta Udalak, bereziki, Jarduketa-planean sartzeko baldintzak onartzen ditu, hain zuzen ere, Kontsurtzioak 2000ko azaroaren 23an

gestión de abonados de las respectivas redes secundarias locales de los Ayuntamientos, como al mantenimiento y explotación de las mismas, a petición de cualquiera de los municipios consorciados.

SEGUNDO.- Que el Consorcio tiene encomendado estatutariamente el establecimiento y explotación de la red primaria de abastecimiento y saneamiento de agua a los municipios consorciados.

TERCERO.- Que el artículo 7 de los Estatutos, en sus apartados 2º y 4º establece el marco bajo el cual el Consorcio se hace cargo de la explotación, mantenimiento y reposición de las redes secundarias de los municipios integrantes del mismo.

CUARTO.- Que la Asamblea General del Consorcio, de 23 de noviembre de 2000, aprobó un Plan de Actuaciones que contempla y ordena, al amparo de lo indicado en el artículo 7 de los mencionados Estatutos, la gestión, mantenimiento, explotación y reposición de la red secundaria local, en el convencimiento de mejorar el servicio de distribución de agua y prestarlo en unas mejores condiciones de regularidad, calidad, seguridad y eficacia.

QUINTO.- Que el Ayuntamiento de Galdakao ha solicitado su incorporación al referido Plan de Actuaciones, según acuerdo del Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el 26 de octubre de 2017.

SEXTO.- Que el acuerdo lleva asociados una serie de actuaciones, derechos y obligaciones, aspectos todos ellos que son objeto de regulación de conformidad a las siguientes,

CONDICIONES

PRIMERA.- OBJETO

El presente documento establece las condiciones para la realización por el Consorcio del Plan de Actuaciones para la gestión, mantenimiento, explotación y reposición de la red secundaria local de distribución de agua potable, así como de las redes primarias municipales que permitan explotar los recursos propios municipales y que hubieran sido pactadas entre el Ayuntamiento y el Consorcio.

SEGUNDA.- ACEPTACIÓN DE LOS OBJETIVOS, CRITERIOS Y CONDICIONES PARA LA INCORPORACIÓN AL PLAN DE ACTUACIONES

El Ayuntamiento y el Consorcio aceptan expresamente sus respectivos compromisos, y singularmente el Ayuntamiento las condiciones de incorporación al Plan de Actuaciones, establecidos





egindako Batzar Nagusian hartutako erabakiz ezarri zirenak.

HIRUGARRENA.- ZERBITZUAREN TITULARTASUNA

Galdakako udalerrian edateko ura banatzeko zerbitzuaren titulartasuna udalari dagokio, toki-araubidearen araudiak ematen dizkion eskuduntza guztiak bere gain hartzen dituelarik.

Ondorioz, udala da bigarren mailako sarean ura hornitzeko instalazio guztien titularra eta jabea. Halakotzat jotzen dira Kontsortzioko lehen mailako saretik datozen horniketa-puntuak, banaketa-hodiek, harguneko erregistroko giltza edo balbularaino lotzen dituztenak.

LAUGARRENA.- AKORDIOAREN HELBURUKO INSTALAZIOAK

Udalak instalazioak entregatzen ditu karga ekonomikorik eta bestelakorik gabe, eta bere inbentarioa, alde biek elkarrekin berrikusi ondoren, erabaki honen eranskin gisa batuko da.

Inventario hori tokiko bigarren mailako sarearen azpiegitura hidraulikoari dagokio, bigarren mailako sare-azpiegitura horri lotuta dauden hargunear, biltontziak eta ponpaketak barne; bere kasuan, hitzartutako udalaren lehen mailako sarea sartuz, bigarren mailako sare gisa txertatuta, bere ustiapena eta mantenua akordio honetan sartzen delarik. Kontsortzioaren esku geratzen da udal baliabide hauek ustiatzea optimizazio-irizpide tekniko ekonomikoak erabiliz.

BOSGARRENA.- KONTSORTZIOAK BEREGAIN HARTZEN DITUEN BETEBEHARRAK

Kontsortzioak beregain hartzen du udalaren bigarren mailako sarea kudeatu, ustiatu eta mantentzeko betebeharra. Era berean, gehienez 12 hileko epean, bigarren mailako sarea konpontzeko proiektuaren erredakzioa egitea ere beregain hartzen du, bertan Udalak beregain hartu behar dituen inbertsioak eta urte anitzeko inbertsio-programak islatuz.

SEIGARRENA.- GALDAKAKO UDALAK BEREGAIN HARTZEN DITUEN BETEBEHARRAK

Udalak, Kontsortzioak Berritze-planaren jarduketak ezartzen dituen Berritze-proiektua bidaltzen denetik hasita gehienez 4 hileko epean, eskumena duen organoak onetsi beharko ditu finantzaketa eta Plan hori guztiz exekutatzeko berrmatzen dituen urte anitzeko konpromisoak, garatzen den epe osoan.

por acuerdo de la Asamblea General del Consorcio de 23 de noviembre de 2000.

TERCERA.- TITULARIDAD DEL SERVICIO

La titularidad del servicio de distribución de agua potable en el municipio de Galdakao corresponde a su Ayuntamiento, quien asume todas las atribuciones que le confiere la normativa de régimen local.

En consecuencia, el Ayuntamiento es titular y propietario de todas las instalaciones de abastecimiento de agua en red secundaria, entendiéndose por tales las que enlazan los puntos de suministro, provenientes de la red primaria del Consorcio, con las conducciones de distribución hasta la llave o válvula de registro de la acometida.

CUARTA.- INSTALACIONES OBJETO DEL ACUERDO

Las instalaciones son entregadas por el Ayuntamiento libre de cargas económicas y de cualquier otra índole, y su inventario, una vez revisado conjuntamente por ambas partes, se unirá como adenda al presente acuerdo.

Dicho inventario se corresponde con la infraestructura hidráulica de la red secundaria local incluyendo las acometidas, los depósitos y bombes asociados a dicha infraestructura de red secundaria, incluyendo, en su caso, la red primaria municipal pactada, que se incorpora como secundaria y cuya explotación y mantenimiento se encuadra en el presente acuerdo, reservándose el Consorcio la explotación de estos recursos municipales con criterios de optimización técnico-económicas.

QUINTA.- OBLIGACIONES QUE ASUME EL CONSORCIO

El Consorcio asume la obligación de gestionar, explotar y mantener la red secundaria municipal, así como redactar en el plazo máximo de 12 meses, un proyecto de reposición de la red secundaria, en donde queden reflejadas las inversiones y programas plurianuales de inversión que debe asumir el Ayuntamiento.

SEXTA.- OBLIGACIONES QUE ASUME EL AYUNTAMIENTO DE GALDAKAO

El Ayuntamiento, en el plazo máximo de 4 meses desde la remisión por el Consorcio del Proyecto de Reposición donde se establecen las actuaciones del Plan de Reposición, deberá someter a la aprobación del órgano competente, los compromisos plurianuales que garanticen la financiación y total ejecución del

Udalak, Kontsortzioak ustiatzea hitzartu ez dituen udal baliabideei lotutako azpiegitura hidraulikoen hobekuntzak egitea eta ustiapen-kostu guztiak beregain hartuko ditu.

Kasu guztietan, Kontsortzioko baliabideekin egindako hornidurazko proiektu alternatiboak exekutatzea, hau da, hornitutako guneak udal baliabideekin Kontsortzioko lehen mailako sarearen horniketa iristen den biltontzitik elikaturiko sarera lotzekoak, baita ere, Udalaren kontu izango dira.

ZAZPIGARRENA.- AKORDIOAREN BALIOA ETA HOBEKUNTZA

Seigarren klausularen lehenengo paragrafoan adierazten diren udal akordioaren egiaztagiriak, akordio honen eranskin gida sartuko dira, behin betiko balidatuz eta hobetuz.

Udalak aipatutako akordioak hartu ezin izango ez balitu, arazo hori Kontsortziolari jakinaraziko dio ezinezkoa izateko arrazoiak adieraziz.

Horrek suposatuko du Kontsortzioak hitzartutako zerbitzuak prestatzeari utziko diola eta lehen mailako sarean fakturatzeari berrekingo diola, hori guztia akordio hau sinatu aurretik zeuden baldintza berberetan.

ZORTZIGARRENA.- KONTSORTZIOAREN KONTURAKO BIRJARTZE PLANAREN UDAL KONPROMISOA AMAITZEAN

Udalaren Birjartze Plana exekutatu ondoren, Kontsortzioak Birjartze Planari ekingo dio bere kontura, une bakoitzean aurre egin dezakeen inbertsioari doitutako finantzaketaren bidez, akordioaren epea, edo, bere kasuan, luzapenarena agortu arte.

BEDERATZIGARRENA.- LEHEN MAILAKO SAREKO ZERBITZUEN ORDAINKETA ETA FAKTURAZIOA

Kontsortzioak, prestazioagatiko konpentsazio ekonomiko gisa, udalari legezkiokkeen bigarren mailako sareko tarifako etekin ekonomiko guztiak, udal instalazioen kontsumoak, hala nola dagokien Laguntza Planaren zenbatekoa sartuko ditu.

mencionado Plan, durante la totalidad del plazo en el que se desarrolle el mismo.

El Ayuntamiento deberá hacerse cargo de todas las mejoras y costos de explotación de las infraestructuras hidráulicas asociadas a los recursos propios municipales, cuya explotación por el Consorcio no hubiera sido pactada.

En todo caso, la ejecución de proyectos alternativos de abastecimiento con recursos del Consorcio, es decir, los de conexión de los núcleos abastecidos con recursos municipales a la red alimentada desde el depósito al que llega el suministro de la red primaria del Consorcio, serán también por cuenta del Ayuntamiento.

SÉPTIMA.- VALIDEZ Y PERFECCIONAMIENTO DEL ACUERDO

Los documentos acreditativos de los acuerdos municipales señalados en el párrafo primero de la cláusula sexta, se incluirán como adenda al presente acuerdo, validándolo y perfeccionándolo definitivamente.

Caso de que el Ayuntamiento no pudiera adoptar los acuerdos referidos, comunicará al Consorcio tal circunstancia expresando las razones que lo imposibilitan.

Ello supondrá que el Consorcio dejará de prestar los servicios convenidos y reiniciará la facturación en red primaria, todo ello en las mismas condiciones que las existentes con anterioridad a la firma del presente acuerdo.

OCTAVA.- OBLIGACIONES QUE ASUME EL CONSORCIO AL FINALIZAR EL COMPROMISO MUNICIPAL DEL PLAN DE REPOSICIÓN

Una vez ejecutado el Plan de Reposición Municipal, el Consorcio iniciará el Plan de Reposición a su cargo, mediante una financiación ajustada a las posibilidades de inversión que en cada momento pueda afrontar, hasta agotar el plazo del acuerdo, o de la prórroga en su caso.

NOVENA.- PAGO DE LOS SERVICIOS Y FACTURACIÓN EN RED PRIMARIA

El Consorcio, como compensación económica a la prestación, ingresará la totalidad de los rendimientos económicos de la tarifa en red secundaria que le correspondieran al Ayuntamiento, incluso los consumos de las instalaciones municipales, así como el importe del Plan de Ayudas que le pudiera corresponder.





Akordioak indarrean dagoen bitartean, behin-behineko fasean eta behin betiko fasean, Kontsorzioak udalari lehen mailako sareko fakturazioa etengo du.

HAMARGARRENA.- ERREGELAMENDUAK ETA ARAUDI APLIKAGARRIA

Edateko uraren banaketa gaitan indarrean dagoen araudi eta erregelamendu guztiak aplikatuko dira, baita Kontsorzioaren barne-araudia ere, horniduraren baldintzei, sareen edukiera handitzeari, uren kalitateari eta abarri dagokienean eta, bereziki, Ur-horniketa eta Saneamendu Zerbitzua arautzen duen Ordenantza.

HAMAIKAGARRENA.- UDALERRIKO SAREAK KUDEATU, MANTENDU ETA USTIATZEKO ZERBITZUAK

Kontsorzioak, 2000ko azaroaren 23ko Batzar Nagusian hartutako akordioan ezarritako egutegiaren arabera, garatu beharreko jarduerak ondokoak dira:

1. Erreklamazioak jasotzea telefonogunean.
2. Ekintzaren analisisa eta identifikazioa.
3. Ixteko maniobren definizioa, identifikazioa eta eragindakoei abisatzea.
4. Baliabideen mobilizazioa eta koordinazioa.
5. Jarduketeki buruzko txostenak eta datu-baseak egitea.
6. Aditu taldeen interbentzioa zerbitzuei erantzuteko moduko kopuruaz eta kalitateaz.
7. Hodien eta osagarrien ordezkotze piezen biltegia.
8. Herri-lanen ibilgailuak eta makineria zangetan konponketak eta lanak egiteko.
9. Zoladurak eta hiri-altzariak birjartzea udal araudiaren arabera.
10. Hodiak, ixteko eta erregulazio elementuak, hidranteak, ur-harguneak etab, konponketen argazkiekin.
11. Konpontzen diren hodi barruko laginak hartzea, zahartze-egoera aztertzeke.
12. Harguneak zaindu eta konpontzea eta berunezkoak edo hondatuta dauden beste materialak aldatzea.
13. Hargune berriak egitea.
14. Obren segurtasuna, seinalizazioa eta garbiketa.
15. Ixteko maniobrak eta lehengoratzea prozeduren arabera.
16. Banakako kontagailuen mantenua ohiko zerbitzu-orduetatik kanpo.

Durante la vigencia del acuerdo, fase provisional y fase definitiva, el Consorcio suspenderá la facturación en red primaria al Ayuntamiento.

DÉCIMA.- REGLAMENTACIÓN Y NORMATIVA APLICABLE

Será de aplicación toda la normativa y reglamentación vigente en materia de distribución de agua potable, incluida la normativa interna del Consorcio, sobre las condiciones de suministro, dimensionamiento de redes, calidad de las aguas, etc., y en particular la Ordenanza Reguladora del Servicio de Abastecimiento de Agua y Saneamiento.

UNDÉCIMA.- SERVICIOS DE GESTIÓN, MANTENIMIENTO Y EXPLOTACIÓN DE LAS REDES MUNICIPALES

Las actividades a desarrollar por el Consorcio, de conformidad con el calendario establecido en el acuerdo de la Asamblea General de 23 de noviembre de 2000, serán las siguientes:

1. Recepción de reclamaciones en la central de llamadas.
2. Análisis e identificación del evento.
3. Definición de las maniobras de cierre, identificación y aviso a los afectados.
4. Movilización de efectivos y coordinación de los mismos.
5. Generación de informes y bases de datos de actuaciones.
6. Intervención de equipos especialistas en la cantidad y calidad necesaria para satisfacer los servicios.
7. Almacén de repuestos de tuberías y accesorios.
8. Disposición de parque móvil y de maquinaria de obras públicas para reparaciones y trabajos en zanjas.
9. Reposición de firmes y mobiliario urbano según normativa municipal.
10. Reparaciones de tuberías, elementos de cierre y regulación, hidrantes, bocas de riego etc., con fotografiado de las reparaciones.
11. Toma de muestras del interior de las tuberías que se reparan para estudiar su estado de envejecimiento.
12. Conservación y reparación de acometidas existentes y sustitución de las de plomo u otros materiales deteriorados.
13. Realización de nuevas acometidas.
14. Seguridad, señalización y limpieza de obras.
15. Maniobras de cierre y restitución según procedimientos.
16. Atención al mantenimiento de los contadores divisionarios fuera de las horas de servicio habitual.



17. Instalazio elektrikoak, ponpaketak eta prebentziozko mantenu-bideak zaindu eta mantentzea.
18. Sareko uraren kontrol sanitarioa.
19. Presioen kudeaketa zuzena.
20. Urreztatzaileen kontrola eta mantenua.
21. Ur-ihesak detektatzea.
22. Gauz emariak eta sakonerak neurtzeko ekipoen erabilgarritasuna.
23. Iruzurrezko harguneak sistematikoki bilatzea.
24. Kontsumitu baina neurtu ez den uraren neurketa eta estimazioa.
25. Kartografia informatizatuaren digitalizazioa eta eguneratzea, akordioa sinatu den datatik hasita bi hileko epean.
26. Banaketa-sareen kudeaketa integralarekin zerikusia duten sistema informatikoen ustiapena.
27. Laneko aginduen igorpen informatikoa.
28. Ereduen interpretazioa.
29. Txostenak egitea.
30. Emaizten integrazio informatikoa.

HAMABIGARRENA.- LANEN ANTOLAKUNTZA ETA PLANGINTZA

Kontsorzioaren eskumena izango da akordio honen xedeko lanak antolatzea eta planifikatzea, besteak beste, ondokoak:

- Parte-hartzen duten elementuen antolakuntza funtzionala eta definizioa.
- Lanpostu-zerrenda, funtzioak eta ordutegiak.
- Lanen plangintza operatiboa.
- Zerbitzuari lotutako langileen kudeaketa.
- Giza baliabideak eta baliabide materialen azpikontratazioa.
- Biltegiak eta ibilgailuak.
- Erabakiak hartzea eta konponketak egiteko etenaldien politika.
- Sareko uraren kalitatearen jarraipena eta zaintza.
- Dokumentuen erredakzioa.
- Elkartutako ingeniariatza.
- Auskultazio planak.
- Kontrol ekiptoak sarean instalatzea.
- Birjartze plana eta ezarpena.

HAMAHIRURRENA.- UDAL SAREAK KUDEATU, MANTENDU ETA USTIAZTEKO ZERBITZUETATIK KANPO DAUDEN JARDUERAK ETA OBRAK

Kontsorzioaren eskumena da udal sareak kudeatu, mantendu eta ustiatzea eta halakotzat jotzen dira abonatuaren hargunerainoko banaketa-sareak.

17. Conservación y mantenimiento de instalaciones eléctricas, bombeos y rutas de mantenimiento preventivo.
18. Control sanitario del agua en la red.
19. Correcta gestión de presiones.
20. Control y mantenimiento de cloradores.
21. Detección de fugas de agua.
22. Disponibilidad de equipos de medida de caudales y fondos nocturnos.
23. Búsqueda sistemática de tomas fraudulentas.
24. Medición y estimación de agua consumida y no medida.
25. Digitalización y actualización de cartografía informatizada en el plazo de dos meses a partir de la fecha de la firma del acuerdo.
26. Explotación de sistemas informáticos relacionados con la gestión integral de redes de distribución.
27. Emisión informática de órdenes de trabajo.
28. Interpretación de modelos.
29. Realización de informes.
30. Integración informática de resultados.

DUODÉCIMA.- ORGANIZACIÓN Y PLANIFICACIÓN DE LOS TRABAJOS

Será competencia del Consorcio la organización y planificación de los trabajos objeto del presente acuerdo, entendiéndose como tales, entre otros, los siguientes:

- La organización funcional y definición de elementos intervinientes.
- La relación de puestos de trabajo, funciones y horarios.
- La planificación operativa de los trabajos.
- La gestión del personal vinculado al servicio.
- La subcontratación de medios humanos y materiales.
- Los almacenes y parque móvil.
- La toma de decisiones y política de cortes para reparaciones.
- El seguimiento y vigilancia de la calidad del agua en la red.
- La redacción de documentos.
- La ingeniería asociada.
- Los planes de auscultación.
- La instalación de equipos de control en la red.
- El plan de reposición y su implantación.

DECIMOTERCERA.- ACTIVIDADES Y OBRAS EXCLUIDAS DE LOS SERVICIOS DE GESTIÓN, MANTENIMIENTO Y EXPLOTACIÓN DE LAS REDES MUNICIPALES

Será de competencia del Consorcio la gestión, mantenimiento y explotación de las redes municipales, entendiéndose como tales las de distribución hasta la acometida de los abonados.



Aitzitik, Kontsortzioaren eskumeneko mantenu eta ustiapen lanak ez dira joko hodian sekzioa aldatzeari, fabrikako obrak eraikitzeari dagozkion jarduketak eta obrak, hala nola, biltokiak edo banaketa-sarea handitzea eta, bereziki, matxura-indize handiko hodiak aldatzea. Hauek handitzeko obrak direla joko da eta Udalaren kontura izango dira.

HAMALAU GARRENA.- **BERMEA**

HORNIDURA

Kontsortzioak erabiltzaileen esku jarriko du ura etenik gabe, derrigorrezkoa ez balitz eta ondoren zehatzen den kasuetan:

1. Akordio honen xedeko lehen mailako edota bigarren mailako sarearen instalazioetan programatutako obren edota konponketengatik.
2. Presakotasunagatik, lehen mailako edota bigarren mailako sarearen elementuen hausturagatik sortu diren matxurak konpontzeko.
3. Gertakari meteorologiko txarrak edo beharizan larriak edo hondamenekin zerikusia duten beste ondorio batzuk gainditzeko.

HAMABOS GARRENA.- **BERRIEI ERANTZUTEKO** **BEHARREKO OBRAK**

HORNIDURA **EGIN**

Hornidura-eskaera berriei Kontsortzioak erantzungo die, ondoko baldintzetan:

- Hornidura berria, halakorik ez duten eta banaketa-sareak zerbitzatzen dituen zonetan dauden eraikinetara.
- Kontsortzioak, hornidurari dagokionez, eraikinak eta banaketa-sareak dituzten ezaugarrien arabera, sustatzaileak ordaindu beharko duen aurrekontua prestatuko du.
- Hornidura berria, halakorik ez duten eta sarea handitzea behar duten zonetan dauden eraikinetara.
- Kontsortzioak, eraikinak eta banaketa-sareak dituen ezaugarriak kontuan hartuta, dagokion aurrekontua prestatuko du, bertan sarea handitzea sartuz. Zenbatekoa sustatzaileak ordaindu beharko du.
- Urbanizatu berriko zonetan banaketa-sarea ipintzea.
- Udalak Kontsortzioari proiektua erredaktatzea eta obra zuzentzea agindu diezazkioke, sare berriak sortzen dituen obren kostua udalaren kontura izango delarik.

Contrariamente, no se considerarán trabajos de mantenimiento y explotación de competencia del Consorcio, aquellas actuaciones y obras que se refieran al cambio de sección de conducciones, a la construcción de obras de fábrica, tales como ampliación de depósitos o de la red de distribución, y en especial la sustitución de tuberías con un alto índice de averías, las cuales se considerarán obras de ampliación y serán por cuenta del Ayuntamiento.

DECIMOCUARTA.- **SUMINISTRO**

GARANTÍA DE

El Consorcio pondrá el agua a disposición de los usuarios de manera permanente, excepto en casos de fuerza de mayor y en los que a continuación se especifican:

1. Por causa de obras y/o reparaciones programadas en las instalaciones de la red primaria y/o secundaria objeto del presente acuerdo.
2. Por causa de urgencia, para atender averías producidas por roturas de los distintos elementos de la red primaria y/o secundaria, cuya reparación tenga que efectuarse de forma inmediata.
3. Para superar episodios meteorológicos adversos u otras causas relacionadas con situaciones de emergencia o catastróficas.

DECIMOQUINTA.- **PARA ATENDER NUEVOS SUMINISTROS**

Las nuevas peticiones de suministro serán atendidas por el Consorcio, en las siguientes condiciones:

- Nuevo suministro a inmuebles que carezcan del mismo y se encuentren en zonas servidas por la red de distribución.
- El Consorcio, sobre la base de las características del inmueble en cuanto a suministro y las de la red de distribución, confeccionará el presupuesto correspondiente que tendrá que satisfacer el promotor.
- Nuevo suministro a inmuebles que carezcan del mismo y se encuentren en zonas que exijan la ampliación de la red existente.
- El Consorcio, teniendo en cuenta las características del inmueble y la de la red de distribución, confeccionará el presupuesto correspondiente en el cual se incluirá la ampliación de la red existente. Su importe deberá ser satisfecho por el promotor.
- Colocación de red de distribución en zonas de nueva urbanización.
- El Ayuntamiento podrá encargar al Consorcio la redacción del proyecto y su dirección de obra, siendo a cargo del Ayuntamiento el coste de las obras que la nueva red origine.



HAMASEIGARRENA.- BANAKETA-SAREA ZABALTZEA

Kontsortzioak udalari zerbitzua garatzeko dituen aurreikuspenak jakinaraziko dizkio, adibidez, ubideak zabaltzea justifikatzen duen kontsumoa handitzea edo obra berriak egitea.

Udalak Kontsortzioari agindu diezaioke behar diren proiektuak erredaktatzea eta obra-zuzendaritza egitea, proposatutako zabaltzeetatik eta berrikuntzetatik eratorritako kostua udalaren kontura izanik.

Udalak urbanizazio partikularren sareak udalaren banaketa-sarean sartu nahi izango balitu, Kontsortzioaren txostena nahitaezkoa izango da, bertan sare horiek mantentze-egoera egokian daudela adieraziz.

Udalak urbanizazio partikularren jabeen eta Kontsortzioaren arteko hitzarmen edo akordio bereziak egitea baimen dezake, inguruabarren hala eskatzen badute.

HAMAZAZPIGARRENA.- UR-HARGUNEAK, HIDRANTEAK, BALBULAK ETA BESTELAKO MEKANISMOAK INSTALATZEA

Ur-harguneak eta hidranteak, balbulak eta bestelako mekanismoak instalatzea Kontsortzioak egingo du Udalaren edo eskatzen duenaren kontura, bertan daudenak berriztatzen ez badira.

HAMAZORTZIGARRENA.- UR-HARGUNEEN ETA HIDRANTEEN ERABILERA

Ur-harguneak Kontsortzioak zigilatuko ditu eta udalaren garbiketa-zerbitzuak edo kontratatutako enpresak soilik erabili ahal izango ditu, ondo erabiltzeaz eta zigiluen zaintzaz arduratuko delarik.

Udalak edo kontratatutako enpresak, bere kasuan, kontsumo horiek ordainduko dituzte, Kontsortzioak egindako faktura aurkeztu ondoren.

Udalak udal zerbitzuei edo kontratatutako enpresari elementu hauen erabilera-plana eskatuko die, eta Kontsortzioari jakinaraziko dio.

HEMERITZAGARRENA.- SAREA KONTROLATZEKO INSTALAZIOAK

Sarearen errendimenduaren aurrerabidea, ihesak,, presioak, emariaren neurgailuak, kalitatearen jarraipen-elementuak, alarmak eta abar ebaluatzen eta kontrolatzeko gailuen instalazioa eta sarearen kontrolarekin zerikusia duten beste mekanismoak Kontsortzioak, bere kontura, egingo ditu.

HOGEIGARRENA.- HARGUNEEN

DECIMOSEXTA.- AMPLIACIÓN DE LA RED DE DISTRIBUCIÓN

El Consorcio comunicará al Ayuntamiento sus previsiones sobre el desarrollo del servicio, tales como aumentos de consumo que justifiquen la ampliación de las conducciones o la realización de obras nuevas.

El Ayuntamiento podrá encargar al Consorcio la redacción de los oportunos proyectos y su dirección de obra, siendo a cargo del primero el coste derivado de las ampliaciones y renovaciones propuestas.

En el supuesto de que el Ayuntamiento desee incluir en la red de distribución municipal las redes de urbanización particulares, será preceptivo el informe del Consorcio, en el que conste que éstas se encuentran en adecuado estado de conservación.

El Ayuntamiento podrá autorizar la celebración de convenios o acuerdos específicos entre la propiedad de las urbanizaciones particulares y el Consorcio si las circunstancias así lo demandan.

DECIMOSÉPTIMA.- INSTALACIÓN DE BOCAS DE RIEGO, HIDRANTES, VÁLVULAS Y OTROS MECANISMOS

La instalación de bocas de riego e hidrantes, válvulas y otros mecanismos será realizada por el Consorcio con cargo al Ayuntamiento o peticionario, siempre y cuando no suponga la renovación de los ya existentes.

DECIMOCTAVA.- USO DE LAS BOCAS DE RIEGO E HIDRANTES

Las bocas de riego serán precintadas por el Consorcio y sólo podrán ser utilizadas por el servicio de limpieza municipal o empresa contratada, quien se encargará de su buen uso y conservación de precintos.

El Ayuntamiento o la empresa contratada, en su caso, abonarán estos consumos, contra factura emitida por el Consorcio.

El Ayuntamiento exigirá un plan de uso de estos elementos a los servicios municipales o empresa contratada, y lo pondrá en conocimiento del Consorcio.

DECIMONOVENA.- INSTALACIONES PARA CONTROLAR LA RED

La instalación de los dispositivos para evaluar y controlar el progreso del rendimiento de la red, fugas, presiones, medidores de caudal, elementos de seguimiento de la calidad, alarmas, etc., y otros mecanismos relacionados con el control de la red, serán realizadas por el Consorcio y a su cargo.

VIGÉSIMA.- GESTIÓN DE ACOMETIDAS



KUDEAKETA

Harguneen kudeaketa Kontsortzioak arlo honetan ezarritakoa bete behar du eta bereziki ondokoa:

- Harguneak egiteko prozeduren dokumentua.
- Harguneen kudeaketa teknikoaren dokumentua.
- Ur-horniduraren eta Estolden Zerbitzua arautzen duen Ordenantza.

Udalak, obra-lizentziak ematerakoan eta horretarako baldintza orokor gisa, berariaz ondokoa jasoko du:

- Hargunearen exekuzioa hornidura Kontsortzioan kontratatu ondoren egingo da, adierazitako lizentzia aurkeztu ostean.
- Udalaren saretik obra ixteko horma igaro arteko hargunea egiteagatiko zenbatekoa eskatzailearen kontura izango da.
- Udalaren bigarren mailako sarean hargunearen lotura Kontsortzioak soilik exekutatu du, eskatzailearen kontura.

HOGETA BATGARRENA.- TOKIKO BIGARREN MAILAKO SAREAK USTIATZEARI LOTUTAKO INGENIARITZA

Kontsortzioak sare-sistemak ustiatzeko ingeniari-tza garatu beharko du, horretarako lagundu eta informatizatzeko, erabiltzaileen arreta hobea izateko eta kostuak optimizatzeko.

Eremu horretan garatu eta denboran eguneratuta mantendu beharreko gutxienezko aspektuak ondokoa izango dira:

- Kartografia Digitalizatua (GIS)
- Presio-banaketa optimizatzeko sarearen simulazio-eredua
- Interfasea telefonogunearekin eta laneko aginduak sortzea
- Laneko aginduak sortzea, esku-hartze baliabideak eta datak izendatzea
- Ixteko poligonoak definitzeko eta eremuan transmisioa egiteko erraztasunak
- Eragindako erabiltzaileen zerrenda egitea eta informazio-prozesuak
- Kostuak ezagutzea
- Ratioak egitea
- Adostutako zerbitzuaren kalitatearen jarraipena
- Banatutako uraren kalitate fisiko kimikoa eta bakterianoaren jarraipena
- Ustiapenaren historikoak eta matxuren estatistikak
- Errendimenduaren kontrola
- Abonatuen zerrenda, batez besteko kontsumoak, historikoak, kontsumo-puntak eta kale-izendegian duten kokapena adieraziz.
- Emaitzak aldizka argitaratzea

La gestión de acometidas estará condicionada a lo establecido en esta materia por el Consorcio y en particular a:

- Documento de procedimientos para la realización de acometidas.
- Documento de gestión técnica de acometidas.
- Ordenanza Reguladora del Servicio de Abastecimiento de Agua y Saneamiento.

El Ayuntamiento, al emitir las licencias de obra y como condición general de las mismas, recogerá expresamente que:

- La ejecución de la acometida se efectuará una vez contratado el suministro en el Consorcio, previa presentación de la indicada licencia.
- Será de cuenta del solicitante el importe de la realización de la acometida desde la red municipal hasta pasado el muro de cerramiento de la obra.
- La conexión de la toma de la red secundaria municipal será ejecutada exclusivamente por el Consorcio, con cargo al solicitante.

VIGESIMOPRIMERA.- INGENIERIA ASOCIADA A LA EXPLOTACIÓN DE LAS REDES SECUNDARIAS LOCALES

El Consorcio deberá desarrollar la ingeniería a la explotación de sistemas de redes para facilitar e informatizar la misma, en beneficio de una mejor atención al usuario y una optimización de los costos.

Los aspectos mínimos a desarrollar en este campo y a mantener actualizados en el tiempo, serán como mínimo, los siguientes:

- Cartografía Digitalizada (GIS)
- Modelo de simulación de la red para optimizar el reparto de presiones
- Interfase con la central de llamadas y generación de órdenes de trabajo
- Creación de órdenes de trabajo, asignación de medios y fechas de intervención
- Facilidades para la definición polígonos de cierre y su transmisión en campo
- Generación de listado de usuarios afectados y procesos de información
- Conocimiento de costos
- Generación de ratios
- Seguimiento de la calidad del servicio acordado
- Seguimiento de la calidad físico-química y bacteriana del agua distribuida
- Históricos de explotación y estadísticas de averías
- Control de rendimiento
- Relación de abonados con consumos medios, históricos, puntas de consumo y su ubicación en el callejero
- Publicación periódica de resultados

HOGEITA BIGARRENA.- UR-IHESEN KOKAPENA

Kontsortzioak sarea auskultatzeko kanpainak egin behar dituela beregain hartzen du, lan-metodo aurreratuak eta teknika berritzaileak erabiliz.

Horretarako, Kontsortzioak lehenetsunez sektoreko neurgailuak instalatuko ditu, hala nola emari-neurgailuak ura banaketa-saretik gauzez duen ibilia neurtzeko.

HOGEITA HIRUGARRENA.- UREN KALITATEA

Udalaren banaketa-sareetan eta lehen mailako sareetan uren kalitatea zaintzeko erantzukizuna, adostu zen bezala, Udalari dagokio, beronek araudiaren aginduz Kontsortzioari delegatzen diona, Erregelamendu Osasun Teknikoaren garapena beregain hartuz.

HOGEITA LAUGARRENA.- OBRAK ETA JARDUKETAK ETA UDAL ORDENANTZAK

Akordio honen ondorioz, udalerrian garatzen diren obrak eta jarduketak Udal Ordenantzen arabera exekutatuko dira edo, halakorik ezean, Udalaren aginduak betez.

Udal irizpideak aplikatuko zaizkio espaloiak eta galtzadak, materialak, baldosa mota, zintarriak eta, orokorrean, hiri-altzariak birjartzean izan beharreko estetikari aplikatuko zaizkio.

Salbuespen gisa, birjarri beharreko elementuak, farolak, iturriak, bankuak, lorategiak, errotuluak, apaingarriak e.a., konpondu behar direlako edo akordio honetatik eratorritako jarduketengatik eraginda daudenean, eta kostua jasota ez balego, Udalak ordaindu edo, bere kasuan, zuzenean berak egingo ditu.

HOGEITA BOSGARRENA.- BIDE PUBLIKOA ETA UDAL LIZENTZIA ERABILTZEKO ESKUBIDEA

Kontsortzioak bide publikoa erabiltzeko eskubidea izango du zerbitzuko hodiak jartzeko, hala nola konponketa eta zainketa lanak egiteko, bide publikoen erabileraz, lanorduez, zaratako mugaz, obren seinaleei buruz eta istripu-arriskuen puntuaz Udal Ordenantzek diotena kontuan hartuz.

Kontsortzioa edo zerbitzua ematen den edozein

VIGESIMOSEGUNDA.- LOCALIZACIÓN DE FUGAS DE AGUA

El Consorcio asume la obligación de efectuar campañas de auscultación de la red, mediante la utilización de avanzados métodos de trabajo y con la utilización de técnicas innovadoras.

Para ello, será prioritario la instalación por el Consorcio de medidores sectoriales, así como caudalímetros instalados para medir la circulación nocturna del agua por la red de distribución.

VIGESIMOTERCERA.- CALIDAD DE LAS AGUAS

La responsabilidad del establecimiento de la vigilancia de la calidad de las aguas en las redes de distribución y redes primarias municipales acordadas corresponde al Ayuntamiento, quien la delega reglamentariamente en el Consorcio, asumiendo por lo tanto el desarrollo de la Reglamentación Técnico Sanitaria.

VIGESIMOCUARTA.- LAS OBRAS Y ACTUACIONES Y LAS ORDENANZAS MUNICIPALES

Las obras y actuaciones que se desarrollen en el término municipal como consecuencia del presente acuerdo se ejecutarán de acuerdo con las Ordenanzas Municipales o en su defecto con las indicaciones del Ayuntamiento.

Los criterios municipales se aplicarán a la estética de la reposición de aceras y calzadas, materiales, tipo de baldosa, bordillos y mobiliario urbano en general.

Las reposiciones de carácter excepcional de elementos tales como farolas, fuentes, bancos, jardines, rótulos, elementos ornamentales, etc., afectados por reparaciones o actuaciones derivadas del presente acuerdo, cuyo coste no se encuentre contemplado en el mismo, serán abonados, o en su caso realizadas directamente por el Ayuntamiento.

VIGESIMOQUINTA.- DERECHO A UTILIZAR LA VÍA PÚBLICA Y LICENCIA MUNICIPAL

El Consorcio tendrá derecho a utilizar la vía pública para emplazar las tuberías propias del servicio, así como para las operaciones de reparación y conservación, teniendo en cuenta lo que señalen las Ordenanzas Municipales sobre la utilización de las vías públicas, horarios de trabajos, limitaciones de ruido, señalización de obras y puntos con riesgo de accidente.

El Consorcio o cualquier entidad o sociedad mediante





entitate edo elkarte, tasa edo zerga ordaintzeko salbuetsita egongo da erabilera horregatik eta obra egiteagatik, aurrekontua edozein dela ere.

HOGETA SEIGARRENA.- UDAL LANGILEAK

Kontsortzioak edo zerbitzua ematen den edozein entitatek edo elkarte inoiz ere ez du, funtzionario, lan-kontrataduna edo Udalak kontratatutako edo Udal berorrek kontratatutako enpresek kontratatutako langileen ardura hartuko.

HOGETA ZAZPIGARRENA.- KOORDINAZIOA

Udalaren eta Kontsortzioaren arteko akordio honen garapena koordinatzeko, bi entitateek arduradun bat izendatuko dute sor daitezkeen gorabeherak konpontzeko, horien artean ondokoak:

- Ur-hornidurarekin lotutako udal espedienteak ebaztea
- Banatutako uren kalitateari buruzko udal espedienteak ebaztea
- Aldaketak sarearen funtzionamenduan, ustiapeneko hobekuntzengatik
- Sare berriak planifikatzeko azterketak egitea edota daudenen sekzioa handitzea
- Birjartze Plana egitea
- Obren koordinazioa
- Laginketak eta zangak egiteko baimenak
- Erabiltzeko edota bizigarritasun baimenak
- Iruzurrezko harguneak ikuskatzea
- Suhiltzaile zerbitzuekin eta udaltzaingoarekin koordinazio berezia
- Trafikoa
- Zerbitzuaren araudia eta erregelamentazioa

HOGETA ZORTZIGARRENA.- AKORDIOAREN INTERPRETAZIOA

Akordio honek izaera administratiboa du eta, ondorioz, interpretazioari eta garapenari dagokionean, administrazioaren ordenamendu juridikoak arautuko du

Akordio honek planteatzen ditzakeen interpretatzeko edo exekutatzeko arazoak akordio bateratuz ebaztzeko dira, beti ere dagokion zerbitzu publikoaren prestazio egokia emateko irizpidearekin.

Hala ere, akordio hori lortu ezin izango balitz, parte hartzen duten aldeek euren foruari uko eginda, Bilboko Epaitegi eta Auzitegien mende jartzen dira, akordio hau interpretatu, exekutatu eta ebazterakoan sor litezkeen arazoak ebazteko.

la preste el servicio estarán exentos del pago de tasa o tributo alguno por la citada utilización y por la realización de la obra, cualquiera que sea su presupuesto.

VIGESIMOSEXTA.- PERSONAL MUNICIPAL

El Consorcio o cualquier entidad o sociedad mediante la que preste el servicio en ningún caso se hará cargo del personal funcionario, laboral o contratado del Ayuntamiento o de las empresas a las que el citado Ayuntamiento hubiere contratado todo o parte de los servicios que se acuerdan.

VIGESIMOSÉPTIMA.- COORDINACIÓN

Para la coordinación entre el Ayuntamiento y el Consorcio en el desarrollo del presente acuerdo, ambas Entidades designarán un responsable para resolver cuantas incidencias puedan surgir, entre ellas:

- Resolución de expedientes municipales relacionados con el abastecimiento de agua
- Resolución de expedientes municipales relacionados con la calidad de las aguas distribuidas
- Modificaciones en el funcionamiento de la red, por las mejoras en la explotación
- Realización de estudios para planificación de nuevas redes y/o ampliación de la sección de las existentes
- Realización del Plan de Reposición
- Coordinación de las obras
- Autorizaciones de catas y zanjas
- Permisos de uso y/o habitabilidad
- Inspección de tomas fraudulentas
- Coordinación especial con servicios de bomberos y policía municipal
- Tráfico
- Normativa y reglamentación del servicio

VIGESIMOCTAVA.- INTERPRETACIÓN DEL ACUERDO

El presente acuerdo es de naturaleza administrativa, rigiéndose en consecuencia, en cuanto a su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo.

La resolución de los posibles problemas de interpretación que pueda plantear el presente acuerdo o su ejecución, serán resueltos de común acuerdo y siempre bajo el criterio de una adecuada prestación del servicio público al que el mismo se refiere.

No obstante, si tal acuerdo no pudiera ser alcanzado, las partes intervinientes con renuncia al fuero propio, se someten a los Juzgados y Tribunales de Bilbao, para la resolución de cuantos conflictos pudieran suscitarse en relación con la interpretación, ejecución

y resolución del presente acuerdo.

HOGETA BEDERATZIGARRENA.-
AKORDIOAREN ONDORIOAK, IRAUPENA
ETA LUZAPENA

Baldintzen akordio honek ez du suposatzen parte hartzen duten aldeen eskumenei uko egitea eta aldatzea, horren ondorioz hartzen dituzten konpromisoei lotutako crantzukizunak soilik beregain hartuko luketelarik.

Akordioak sinatzen denetik hasita hilabeteko epean izango ditu ondorioak eta hogeita hirugarren klausulan adierazitako eranskina sinatzen denetik hasita, hau da, Udalak bertan adierazitako konpromisoak hartu ondoren, 10 urteko iraupena izango du. Akordioa luza daiteke bost urteko epetan, beti ere aldeetakoren batek amaitu baino edo, bere kasuan, edozein luzapen amaitu baino bi urte aurretik salatu ez badute.

Akordioa iraungiko da, edo bai indarraldia igaro delako edo alderen batek bete ez duelako.

Eta ezarritakoarekin ados daudela frogatzeko, agertu direnek sinatzen dute, ale bikoitzez, idazpuruan adierazitako lekuan eta datan.

Galdakaoko Udaleko Alkate-Presidentea
Alcalde-Presidente del Ayuntamiento
de Galdakao


Iz./Fdo.: Ibon Uribe Elorrieta

VIGESIMONOVENA.- EFECTOS, DURACIÓN
Y PRÓRROGA DEL ACUERDO

Este acuerdo de condiciones no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

El acuerdo surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde el día 1 de enero de 2018 y tendrá una duración de 10 años. El acuerdo podrá ser prorrogado por periodos de cinco años, siempre que cualquiera de las partes no lo denuncien con dos años de antelación a la fecha prevista para su conclusión o a la de cualquiera de las prórrogas, en su caso.

El acuerdo se extinguirá, o bien por el transcurso del plazo de vigencia o por incumplimiento por alguna de las partes.

Y en prueba de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por duplicado ejemplar en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko Presidentea
Presidente del Consorcio de Aguas
de Bilbao-Bizkaia


Iz./Fdo.: Ricardo Barkala Zumelzu

